

Katalogoak erakundearen web-orritik kontsulta daitezke

Kutxabankek 60 urtez gorakoentzako bidaiak eta txangoen eskaintzari ekin dio berriro

- **Interesatuak Kutxabank Taldearen interneteko atarietan eta Azul Marino Bidaiak-en web-orrian eman dezakete izena**
- **Programaren garapen teknikoa Azul Marino Bidaiak-ek egingo du; Espainiako estatuan erreferentziako operadore turistikoa eta distantzia luzeko bidaietan aditua da**

2021eko irailaren 12an. Azul Marino Bidaiak-ek Kutxabankeko 60 urtetik gorako bezeroentzako bidaiak eta txangoak antolatu ditu berriro **40 irteerarekin 7 herrialdetako 25 helmugatara.**

Txertaketa-kanpaina aurreratuta dagoenez, Azul Marino Bidaiak-ek bidaien programazioa abiarazi nahi izan du itxaropen eta ilusioaren ikur gisa; programak COVIDaren aurka etengabe eguneratutako protokoloekin antolatu dira, betiere osasun-agintarien gomendioei jarraituz.

Dagoeneko eskuragarri daude katalogoak bertsio digitalean erakundearen negozioko web-orrietan, eta segmentuko bezeroek ohiko komunikazio-kanalaren (newsletter edo posta arruntaren) bidez jasoko dute informazioa.

Bidaia-programa hau oso estimatua dute Kutxabankeko bezero zaharrenek, kalitate-prezio erlazio ona duelako eta oso ondo baloratutako zerbitzu osagarriak eskaintzen dituelako, besteak beste gidari laguntzaileak, ibilbide eskusiboak, zerbitzu egiaztatuak edo laguntza- eta ezeztatze-estaldura duen aseguruua.

Ibilbide guztien antolaketa teknikoa Azul Marino Bidaiak-ek egin du. Euskal tour operadore ospetsu hau liderra da bere negozio-segmentuan, 40 urteko esperientzia du distantzia luzeko bidaietan, eta Espainiako estatu osoko turismo-operadore nagusietako bat da.

Helmuga seguruak eta irisgarriak

Aurtengo programazioa antolatzeko, kontuan hartu dira egungo egoerarako helmuga seguruak eta irisgarriak, baita balizko aldaketetara egokitu daitezkeen bidaiak ere.

Horregatik, aurreko edizioetan ez bezala, distantzia luzeko helmugak minimizatu egin dira, eta indartu egin dira kostaldekoak, penintsulako bidaiak, mendi-ibiliak egiteko irteerak, Kanariar Uharteak, Bainuetxeak eta Europako zenbait herrialde.

Erreserba Internet bidez bakarrik formaliza daiteke, Kutxabanken webgunean nagusi edo adinekoentzat dagoen gunetik. Azul Marino Bidaiak, bestalde, bere web atarian, bere bulegoetan eta 946620222 telefono-zenbakian ere eskaintzen du izena emateko aukera.

Bidaia-programaz gozatzeko, ezinbestekoa da pentsioa helbideratuta izatea eta gutxienez erakundearen txartel bat, baita 60 urtetik gorakoa izatea ere, nahiz eta laguntzaileak, ezkontideen edo bikotekideen kasuan, adin horretatik beherakoak ere izan daitezkeen.